

226. ALDIZKARIA - 2015eko azaroaren 12a

UHARTE ARAKIL

5.000 eurotik beherako fakturretan faktura elektronikoa aurkeztu beharretik salbuesteari buruzko udal ordenantza.

Behin betiko onespena

Uharte Arakilgo Udalak, 2015eko abuztuaren 31n egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 5.000 eurotik beherako fakturretan faktura elektronikoa aurkeztu beharretik salbuestea arautzen duen udal ordenantza. Erabaki hori iragarki oholean paratu zen, eta 2015eko 188. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, irailaren 21ean.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betikoz onesteko agindu da.

Uharte Arakilen, 2015eko urriaren 28an.–Alkatea, Ainara Ayestaran Ijurco.

5.000 EUROTİK BEHERAKO FAKTURETAN FAKTURA ELEKTRONIKOA AURKEZTU BEHARRETIK SALBUESTEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

Artikulu bakarra.–Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontabilitate erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan aurreikusia erabiliz, Uharte Arakilgo Udalak faktura elektronikoa aurkeztu beharretik salbuesten ditu 5000 euro arteko fakturak dituzten hornitzaileak.

Lehenbiziko xedapen gehigarria.–Indarra hartzea.

Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iragarkiaren kodea: L1514557